

Mila eta bat leku.

Gizonak ez dio gaur arte erreparatu parkeko zumarren ostean agertu zaion etxeari. Ez zuen halakorik sekula usteko. Ez leku horretan, behintzat. Harritzekoa da, berak ehun eta mila bider baitauka eginda zumardiko ibilbidea eta ederki daki leku horretan ez dela etxerik izan sekula.

Hor dago egon, hala ere, etxea. Hortxe.

Gurasoekin hirira bizitzera etorri zenetik ederki ezagutzen du ingurua eta haur garaian, eskolara bidean, sarri gurutzatu behar izaten zituen bazter zaindu hauek guztiak. Esango luke bide bazterrak hornitzen dituzten hortentsiak eta errododendro loratu erraldoiak berarekin batera hazitakoak direla mundura. Azal zuriko urki haiek ere berak ikusi zituen landatzen.

Eta etxe hori ez zegoen hor. Segur daki.

Jauregi txiki bat dirudi, aurreko aldeko bi zutabe borobil horiek ematen dioten graziarekin. Ez da gauza handia, hala ere, orube eskasegian jasotako solairu bakarreko etxea baino ez. Hareharrizkoak ditu hormak eta teilatua, hiriko gainerako etxeek ez bezala, arbelezkoa du teilaren lekuan. Leihoak ere gehiegi ditu, estilo ero baten jabe den arkitekto baten gutiziaz hortxe jarritakoak bailiran.

Egia esanda, etxeak ez dirudi dagoen lekukoa denik. Inongoa ere ez dirudi, ordea. Nongoa izan daiteke ba, hainbeste leiho eta begiraleku dituen eraikuntza?

Ematen du barnetik kanpora begiratzeko dagoela eginagoa etxea, alderantzizkorako baino. Bi hitzetan esateko, ez da usu ikusten den moduko etxea eta bere arkitekturak harridura eta ezinegona bezainbeste pizten du lasaitasun zirrara.

Zumarren artetik bistaratu zaionean, ingurura behatu du Gizonak aurkikuntza beste norbaitekin partekatu nahian, baina ez du ibiltaririk kaunitu bazterretan: bakarrik da. Euria dakarten hodei ilunkarek edukiko dute jenderik ezaren errua, seguru asko. Hutsik dago parkea.

Sarrerako bi harrizko mailak igo ditu gizonak, izen edo argibideren baten bila. Kultur etxe bat izango dela pentsatu du, edo musika eskola edo antzeko zerbaitekin, baina harritzekoa litzateke, hala izanda, berak ezer ez jakitea. Jauregi honetaz, sarri ibiltzen baita halakoetan. Gogokoa du bere bakardadea antzeko lekuetara eroatea.

Eta erakarmena sentitu du. Etxeak jakin-mina piztu dio eta tiratu egin du ataritik barnera. Ordea, ez du deus aurkitu, ateburuko harrian bertan zizelkatutako esaldi bat ez bada: *Belar bakoitzak badu bere itzala*.

Ez du maratilarik ere aurkitu, ez tinbre eta ez aldaba. Atearen erdian ispilu txiki eta borobil bat baizik ez du ikusi. Bere bi begiak han pausatu eta bi begien irudia itzuli zaionean, orduantxe zabaldu da atea eta pauso bat barrura egin du gizonak, non sartzen ari den erabakitzeo astirik gabe. Hainbestekoa erakarmena.

Eta ohartu da hura ez dela normala, hainbeste leiho dituen etxeak ezin duela halako iluntasunik izan bere barnean. Atea itxi du orduan barnera egiteko eta atea ixtearekin batera, areagotu egin da iluntasuna. Ia erabatekoa da orain. Soilik puntu txiki batek egiten du argi, hango horma batean. Harantz egin du gizonak, oinak non jartzen dituen arretaz begiratuta.

Ezin dio antzik eman argi-puntua zenbat metrora dagoen. Hasieran ematen zuen hortxe bertan zegoela, lau pauso eskasetara, baina urrunago dago, zalantzarik gabe, lau, hamabi eta berrogeita bi ere bai baitira gizonak ibilitako pausoak.

Gainera, hurbiltzearekin ez da argi-puntua batere handitzen. Hasierako neurria bera du orain ere. Edo hala zaio iruditzen, behintzat. Areago, begitantzen zaio, zenbat eta hurbiltzenago den, txikiagotu egiten dela zuloa. Eta gertaera horrek harritu eta beldurtu egin behar lukeen arren, gizonak erabakita dauka argi-punturaino bertaraino iritsiko dela. Egia esan, beste aukerarik ere ez dauka erabateko iluntasunaren erdian.

Iritsi da halako batean. Hortxe du zuloa. Ez da handia, babarrun baten neurrikoa baino ez, baina kezkatu egiten du, hala ere, handik begiratzeak. Zulotik iristen den argiak, parean duen guztia zulatzeko gaitasuna duela dirudi, laser izpizkoa bailitzan. Gizonak ez luke begirik itsutu nahi. Inola.

Begiratu du, ordea, ausartu egin da. Eta orduan ikusi ditu leihoak, bere inguruan ehunka, milaka eta ezin konta ahala. Argia egin da etxe guztian eta leiho bakoitzetik ikusten dira beste mila edo bost mila leiho, eta haietako bakoitzean mundu txiki bat edo handi bat. Nahi dena. Eta zerua edo lurraren azpia. Urpe sakonak ere antzeman ditu gizonak beste batean eta igel baten sabel hutsa ere agertu zaio. Errinozero adarrez betetako kamioi bat oihanaren erdian, Dante Alighieri zaharra paperaren gainean antzara luma luze batez idazten, sutondoan bildutako lau pigmeo kantuan, zerriak zikiratzen ari den gizon taldea zarataka, tren berri baten makineria sofistikatua, lupi baten ahoan bizi den zorriaren begia, desertuetako hondar ale guztien gainean haizeak ezabatzen dituen arrastoak, ikusi du inork sekula zapalduko gabeko izotzaren zuria eta Empire State Buildingeko igogailuaren neke adierazezina.... Denak eta gehiago ikusi ditu, leihoetan barrena.

Gogora etorri zaizkio Lewis Carrolen kontuak eta Borgesen labirinto ero guztiak. Eta ezetz erabaki du. Ez dela Aleph batean galdutako Alizia berrituarena egiten ibiltzeko unea. Gaur ez, behintzat.

Irteten egin behar du lehenbailehen dagoen lekutik. Nola, ordea? Nola irteten da halako ezleku batetik?

Begia zulotik erretiratzeko imintzioa egin du. Burua bota du apur bat atzera. Zumardia eta parkea agertu zaizkio bat batean. Itzulerako bidea du parean. Ez du atzera behatu nahi. Leihodun etxea benetan hor den ez du egiaztatu nahi. Badaki, nahi duenerako, hortxe edukiko duela aukeran. Eta itzuliko da. Bai horixe. Badaki nola sartu eta nola irteten den. Atea nola zabaldu eta itxi.

Munduko mundu guztiak aldi berean ikusi nahi diren unean, badaki giltza eta maratila oro gordetzen dela bere begiradaren erdian.

Hasier Etxeberria. 060513 JR Elortzarentzat.